



## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Proiektua behar bezala aurrera eramateko hainbat hornitzaile, erakunde eta kontaktu beharko ditugu.

### - **Antolatzaileak:**

Jaialdia We Are One World eta Tomorrowland Foundation enpresek antolatzen dute, LiveStyle sustatzaile estatubatuarrarekin batera.

Harreman hau ezinbestekoa izango da guztiontzat, baina gehien bat guretzat. Tomorrowland-eko enprekin lanean aritu ostean, ospea hartu ahal izango genuke, ondorioz, etorkizunean beste jaialdi batzuetan lan egiteko aukera emango liguke bertan egindako lan onak.

### - **Hornitzaileak:**

Karritoak alokatzeko **golfcar.com** enpresarekin lanean arituko gara. Enpresa honen egoitza nagusia Belgikako Boom herrian dago eta hau Tomorrowland ospatzen den eremutik gertu dago.

Haukin izango dugun komunikazio fluxua konstantea izango da, golf karritoak gure baliabide fisiko garrantzitsuenetakoak direlako.

Helburua Tomorrowland festibalean eskainiko dugun zerbitzurako behar ditugun produktuak lortzea izango litzateke. Horretarako, jaialdia baino lehenago, aurrez-aurre hainbat bilera burutuko ditugu, hornitzaileekin harreman estua mantentzeko, beraiek baitira gure iturri garrantzitsuenak.

### - **Erakundeak:**

Amaitzeko, Aladina erakundeko arduradunekin harremanean arituko gara. Hasteko, gure egitasmoaren berri eman eta beraiei egingo genieken ekarpenari buruz hitz egingo genuke, eta behin proiektua martxan dagoela, elkarren egoerak ezagutzeko edota ekarpenak egiteko komunikazio-fluxu irekia mantenduko genuke.